

SAKONDU LAGUNTZEN PROGRAMA 2020

ETE-EN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEKO LAGUNTZA

HELBURUA: Oso nazioartekotuta dauden enpresei presentzia eskasa edo presentziarik ez duten merkatuetan sartzen laguntzea du helburu.

ONURADUNAK:

Izaera soziala edo instalazio produktiboa EAEn duten mikroenpresak eta enpresa txikiak eta ertainak (ETE), beti ere, indarrean dagoen deialdia baino lehenago eratuak:

- Enpresa horien esportazio-jarduerak bere guztizko fakturazioaren % 50 gainditzea eta helburutzat izatea euren lehiakortasun-posizioa hobetzea merkatu haietan zeintzuetan beren fakturazioa ez den iristen 2019an esportatutako guztizkoaren % 10era.
- Onuraduna izan ahal izateko baldintzak diru laguntzaren indarraldi osoan iraun beharko du.

PROIEKTUEN EZAUGARRIAK:

Gastu hautagarriak:

- Laguntza jaso dezakete 2020ko urtarilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean burututako ekintzak.
- Helmuga herrian, jarduteko jarraian adieraziko diren akzioetatik, gutxienez, 2 mota desberdin egitea sustatzen da:
 - Merkatu azterketak.
 - Jabetza industrialari lotutako gastuak eta homologazioak: patente eta marken erregistroa, batetik, eta homologazioa eta ziurtapena, bestetik.
 - Azokei lotutako gastuak: azoketan parte hartzea, espazioaren alokairua, stand-aren dekorazioa eta azoka bakoitzeko bidaia poltsa bat; biltzarretan, foro espezializatuetan eta azoketan parte hartzea bisitari gisa.
 - Bidaiak: Prospekzio bidaliak, merkatuak aztertzeke eta/edo bezero potentzialak diren enprekin kontaktatzeko eta/edo azokak bisitatzeko eta/edo biltzarretan edo foro espezializatuetan parte hartzeko.
 - Sustapen gastuak: hedapen eta sustapen materiala helmuga herrialdera egokitzea, publizitatea, sustapen-ekintzak, harreman publikoak, iraunkortasun txostenak eta sustapenerako edo ikerketarako beste ekintza batzuk.
 - Enpresaren helmuga-herrialdeko inpaktua aztertzeke jasangarritasun txostenak, kontuan izanik Agenda 2030 planaren garapen jasangarriko helburuak.
 - Eskaera egin den ekitaldian eratutako atzerriko ezarpen produktibo eta komertzialekin lotutako gastuak
 - Talentua: atzerriko langileen hautaketa-prozesuarekin lotutako gastuak.
 - Sustapenerako edo ikerketarako ekintzak eta identifikatutako merkatuetan sartzeko beharrezkoak diren azterketak hirugarrenei kontratatzeke gastuak, baldin eta

Basque Trade & Investment-ek (Nazioartekotzeko Euskal Agentziak) berariaz eta idatziz uko egin badio zerbitzua emateari.

LAGUNTZEN ZENBATEKOA:

Laguntzak onartutako gastuaren % 50eraino iritsi daitezke; gehienez 40.000 euro emango dira eskaera bakoitzeko, eta 45.000 euro eskaera klusterren erakunde dinamizatzaile baten bitartez egiten bada.

Gehienez 6 bidaia-poltsa eskatu ahal izango dira eskaera bakoitzeko. Atzerriko azoketan parte hartzen bada stand batekin eta produktuak aurkezten badira stand horretan edo bisitari bezala parte hartzen bada kongresu eta foro espezializatuetan, bidaia-poltsa bat baino ezingo da eskatu, zeina ez baita zenbatuko aurreko paragrafoan aipatutako mugaren barruan.

ESKAERAK AURKEZTEKO EPEA ETA TOKIA:

Bide elektronikoz tramitazioari buruzko xehetasunak, baita eskaerak, erantzukizunpeko adierazpenak eta erabili behar diren gainerako ereduak ere Interneteko www.spri.eus/sakondur helbidean beteko dira.

Eskaerak aurkezteko epea 2020ko ekainaren 12an hasiko da; eta **2020ko urriaren 30n** bukatuko da, eguerdiko 15:00etan.